

Aldaketa. Lana. Demokrazia. Alternatibak  
Si tú cambias, el mundo cambia

EUSKARA ETA LAN  
MUNDUA. BADA  
ETORKIZUNIK! >3/6. ORR

POR UN SISTEMA  
DE CUIDADOS  
PÚBLICO Y DE  
CALIDAD >PAG. 32

ALDA:  
IPARRALDEN  
ALDAKETA  
ABIAN DA >42. ORR

Miguel Ángel Llamas 'Pitu'  
eta Amaia Merino,

Non dago Mikel? dokumentalaren zuzendariak

**“Torturaren  
galderek bizirik  
diraute”**





3/6

GAIA

Euskaraldia  
Euskara eta lan mundua:  
bada etorkizunik!



42

GAIA

ALDA mugimendua  
jaio da: **Aldaketa  
abian da Iparralden**

14

## ELKARRIZKETA

Andy Robinson:  
**“Preveo nuevos  
estallidos sociales  
en América Latina”**

## ERREDAKZIO TALDEA

*Zuzendaritza:* Iván Giménez  
eta Nagore Uriarte.

*Koordinazioa:* Nerea Ispizua.

*Lantadearia:* Gorka Quevedo, Gabriel  
Zeberio, Lander Zabaleta, Davide Cabaleiro  
eta Bixen Fernández Amezaga.

*Argazkiak:* ALDA eta Foku.

*Ilustrazioa:* IratiINK.

*Argitarazle:* ELA, Euskal Sindikatua.  
Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00.

[www.elas.eus/alda](http://www.elas.eus/alda) • alda@ela.eus

*Lege-gordailua:* BI-425-2018

*Ale kopurua:* 102.000



24

## ELKARRIZKETA

Irene Paredes,  
futbolaria:  
**“Gizonezkoen taldeko  
exijentzia bera dugu”**



ALDAKO ahotsa | Editoriala ..... 03

Iban Zaldua ..... 04

Euskaraldia ..... 06

Entrevista Andy Robinson ..... 14

ALDAKO irakurleak ..... 21

ErALDATzen ..... 22

Irene Paredes ..... 24

17 noviembre: los sectores de  
cuidados van a la huelga ..... 32

June Fernández ..... 34

Reportaje en torno al documental

Non dago Mikel? ..... 36

Reportaje sobre el movimiento

ALDA, en Iparralde ..... 42

KulturALDA ..... 46

ALDAKO Hiztegia: Aukeren

berdintasuna? Noski ezetz! ..... 47

PostALDA ..... 48

# Euskara eta lan mundua: bada etorkizunik!

**A**zaroaren 20tik abenduaren 4ra, bigarrenez, Euskaraldia dator, eta urtean zehar euskararen aldeko lana eta militantzia berrindartuko dugu. Sindikatuon esparrura ekarrita, argi dago hizkuntza-eskubidea langileen eskubideen eta bermeen aldeko borrokan kokatzen dela: Euskal Herrian langile guztiak eduki beharko lukete Euskal Herriko berezko hizkuntza ezagutzeko eta ikasteko eskubidea, lan-jarduna eta lanbidea euskaraz garatzeko, eta lan-harremanak euskaraz burutzeko. Kapitalismoak bultzatzen duen kultura homogeneizazioari aurre egiteko modua ere badelako.

Zentzu horretan, eta krisi honen aurrean, langileok aldaketa-motorra izan behar dugu, eta horretarako, ELAk (LABekin eta Kontseiluarekin batera) proposamen zehatza plazaratzen du:

**Negoziazio kolektiboaren esparruan,  
Confabaski eta CEN, Nafarroako  
Enpresaburuen Konfederazioari, proposatzen  
diegu 50 langiletik gorako enpresa guztietan  
euska-planak garatuko direla jasotzen  
duen akordio interprofesionala hitzartzea.**

EAeko ehun enpresatik bakarrak du euskararen erabilera normalizatzeko prozesu eta egituraren bat garatuta. Beraz, EAEn 138.000 enpresa daude euskararen erabilera normalizatzeko inolako planik edo garapenik gabe. Hamarretik bederatzi.

Nafarroan are gehiago dira. %0,7k bakarrik dute euskara garatzeko prozesu edo egituraren bat.

Tamainari begiratuz gero, neurri txikiko enpresak dira gehienak. EAEn 2.000 batek gainditzen dute 50 langileen langa.

Uste dugu badela garaia eremu sozioekonomikoaren euskalduntzean jauzia egiteko eta, beste gai batzuetan gertatzen den bezala, gai honetan ere enpresa guztiak gizarte erantzukizunez jokatzeko. Guztiz zilegi eta egingarria delako.

Jaurlaritzak zein Nafarroako Gobernuak ere babesia eman behar dute: bestea beste, plan horiek aurrera ateratzeko inbertsio ekonomikoak bideratuz. Are gehiago Jaurlaritza osatu berri den honetan, eta Nafarroako Gobernuak *Nafarroa Suspertu* plana abian jarri duen unean.

Oso simple esanda: gure egunerokoaren zati handi bat lanean igarotzen dugulako, eta ondorioz, gure hizkuntza-praktikak eta -eskubideak baldintzatzen dituen esparrua delako. Langile gisa, lan-harremanak euskaraz izateko eskubidea dugulako langile orok. Lan mundua euskararen normalizazioa garatzeko ezinbesteko esparrua da, eta langileen duintasuna eta eskubide guztiak bermatu ahal izateko espazioa ere bada. A

---

**Os recordamos que Landeia se ha reconvertido en una revista bimestral dirigida a la acción sindical que, en principio, está concebida para ser enviada a los delegados y delegadas. Si no lo eres y quieres seguir recibiendo en papel, solicítala en: ELA, Komunikazio bulegoa. Barrainkua 13, Bilbao o Landeia@ela.eus. Por otra parte, en nuestra web: [www.elaeus](http://www.elaeus) podrás descargar la versión digital de ambas publicaciones, tanto ALDA como Landeia.**

---



Iban Zaldua, irakaslea eta idazlea

**“La educación pública, al igual que la sanidad pública, debería ser una prioridad para el nuevo gobierno: después de muchos años de tener una manga demasiado ancha con la escuela concertada, es hora de que el Gobierno empiece a ocuparse adecuadamente de su red”.**

# Errealismoa

Saiatuko naiz, EAJk eta PSEk osatutako gobernu berriari egingo nizkiokene eskakizunei begira, ahalik eta errealistena izaten, adjektibo ezain horrek daukan etsipen karga guztiaz jakitun eta kontziente, beraz. Hots, berrogeita hamakoxkako herritar zaharruno eta burgestu batí dagokion bezala, ez dut planteatuko baserriak biltzea eta haietkin kolkhozak eratzea, ezta lantegi handien nazionalizazioa ere, ezta bankaren inbertsioen kontrola ere administrazioaren aldetik. Ezta, zer esanik ez, independentzia edo autodeterminazioa ere: EA Era mugatuko naiz, eta jokatuko dut gure gobernuak gauzak egiteko ahalmenik edukiko balu bezala, hots, Spainiaren lurralde antolaera, nazionalitateei inoizko eta inongo autonomia maila altuena ematen dien nazioen nazio etab. etab. hori benetan federala edo are konfederala izango balitz bezala (bai, IMO, covid-19aren krisiak, Legioaren ahuntza eta guzti, berretsi duen moduan).

## PUBLIKOTASUNAREN DEFENTSA

Eta abiatzeko bururatzen zaidan lehentasuna publikotasunaren defentsa izango litzateke. Batzuek esango dute pandemiaren krisiak argi utzi duen kontu nagusienetako bat dela hauxe, baina nik gehituko nuke ez genuela inolako gaixotasunaren beharrik arazoaz jabetzeko, aurreko beheraldi ekonomikoak, 2008an hasitakoak, oso argi utzi zuelako hari emandako erantzun austerrizida horixe zela, etorkizunerako arazoak ereitea.

Aparatu publikoaren defentsa eta indartze horretan, zer esanik ez, osasuna lehen planoan egon beharko litzateke: ustelkeriaren susmo guztiak eta medikuntza pribatuaren enpresa-sektoretik iritsitako kudeatzailak albo batera utzita, lehen mailako arreta berrindartu beharko litzateke, pandemiaren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak ondo finkatu ondoren. Horrek urte luzeetako higadurari buelta ematea ekarri beharko luke, alor hori aspaldi dagoelako gainbeheran –erabiltsaile bezala ondo dakit: medikuak egiten ari diren lan eskerga goraipatuta ere, ez ditut pairatu behar izan telefono bitarteko iruzurrezko kontsultak gainbehera horretaz ohartzeko–.

Hezkuntza publikoak ere lehentasuna izan beharko luke gobernu berriarentzat, hala covid-19aren testuinguruak aurkezten dituen gabeziak konpontzeko orduan, nola orokorrean. Urte askotan zehar eskola kontzertatuarekin mahuka zabalegia eduki ondoren, bada ordua Jaurlaritza bere sareaz arduratzen hasteko eta haren benetako patronal bat bezala jokatzen hasteko. Azken urteotan gure herri eta auzoetan metatutako segregazioari erabakitasunez hasi beharko litzaiok aurre egiten, behingoz: denbora aski galdu dugu jada. Unibertsitate publikoaren finantzazioaren indartzea, hots, eskailera sozialaren martxari hobekien eusten dionarena, agendan egon beharko litzateke, orobat.

Horretarako, zalantzak ez, ogasun sendoago bat behar da, birbanaketa izpiritua berriituarekin, eta, ondorioz, zerga sistema progresiboago bat ezartzeko gai izan beharko litzatekeena, inguruko lehiak eta dumping fiskalak

Un gobierno producto de un pacto entre dos partidos de raíces democristianas y socialdemócratas debería ser capaz de asumir un programa "realista" como el que se presenta aquí, de raíces keynesianas (aunque sin caer en el fetiche del crecimiento económico continuo, y teniendo siempre en cuenta los límites que impone la globalización), y que se centraría en una apuesta por lo público, la progresividad fiscal, la inversión en I+D, las políticas sociales, el impulso a la cultura y la memoria histórica, así como en el abandono de la quimera del turismo, los macroproyectos en infraestructuras y el apoyo a la construcción de la necroEuropa.

permititzen duten neurrian behintzat. Hots, beherapen fiskalak agendatik at geratu beharko lirateke, printzipioz eta gutxinez.

Industrializazio eredu berri baten alde arraun egin beharko luke, halaber, gobernu berriak, hots, eskema ekonomiko konplexuago baten alde, zeinetan I+Gak sustapen handiagoa beregatutuko bailuke, produkzio modu ekologikoki oreaktuagoeen alde egingo bailitzatekeen (CO2ren isurketak murrizteak lehentasun absolutua beharko luke), eta ekarpen benetan produktiborik egiten ez duten adarrak, industria militarra esaterako, birmoldatzen eta zibilizatzen hasi beharko bailitateke behingoz. Horrekin batera turismo sektorearen bultzadarekiko obsesioa apaldu beharko litzateke, apustu eginez produktibilitate eta formazio maila altuagoa eskatzen duten zerbitzuen sektore baten alde, aipatu industria berriarekin, trantsizio ekologikoarekin eta gizarte-zaintzaren alorrekin lotuagoa alegia.

## **ETXEBIZITZA POLITIKA BERRI BAT**

Etxebizitza politika berri bat ere eskatuko nuke, ez hainbeste, edo ez halabeharrez, urte oparoetan gertatu bezala, higiezinen parkea etengabe zabaltzera bideratuta, baizik eta EAEk jadanik eraikita daukanaren probetxua optimizatzen, etxebizitza hutsak zamatz, alokairuen gaineko kontrola areagotuz, eta

etxegabetzeei aurre eginez. Eta alor horretako ekimen herrikoiekiko (adibidez, hutsik zeuden eraikin okupatuekiko) kolaborazio politiken aukerak ikertuz, aurkakotasunezkoak baino. Alderdi sozialean ere, eta eskumenek baimentzen duten neurrian, EAEko prezioen mailara egokitutako erretiro eta bizitzeko gutxieneko errenten politika ausartagoak bultzatzeko ardura izan beharko luke gobernu berriak. Eta, hau ere eskumenen gainetikoa izan bidaiteke ere, 2019an berretsi zen Immigratiorako Gizarte Itunaren ildotik, Europak bere mugetan praktikatzen duen nekropolitikaren aurkako urrats praktikoak emateko eskatuko nioke gobernu koalizioari. Eta egin dezala hori guztia, besteak beste, feminismo garaikideek eskaintzen duten talaiatik, alor bat zeinetan, bide batez esanda, Jauriaritza berriak urrats sinboliko nabarmenak eman ahal izango bailitzkeen Irun eta Hondarribiko alarde matxisten auziaren konponketan laguntzeko (Emakunderen kategoria instituzionalaren jaitsiera ez da, alde horretatik, seinale ona...).

## **KULTURAREN ALDEKO APUSTUA**

Kulturaren aldeko apustua pandemiak agerian ipini duen beste premia bat da, nahiz eta sektore horren prekarizazioa (kulturgileen 'klase ertaina' delakoaren pobretze orokorrarekin) aspaldiko kontua

den, orobat. Azpiegitura handien aroa bukatutzat eman behar da, eta mikroproyektuen aldekoari ekin, edukiez betetzeko hiri eta herri mailako kultur etxe, biblioteka, antzoki, museo, areto eta bestelako esparru kultural fisikoak. Testuinguru horretan, zer esanik ez, hizkuntza gutxituan, euskaraz garatzen diren ekimenek izan beharko lukete lehentasuna (ETB1etik hasita, adibidez), eta aro digital jadanik ez horren berriaren munduekin lotutako proiektuek.

Memoria historikoaren inguruko politika aktibo bat eskatuko nioke, orobat, gobernu berriari, betiere ikuspegiaren pluraltasunetik abiatuta, eta zentratuta, alde batetik, Gerra Zibilaren eta frankismoaren aroan, eta, bestetik, euskal gatazka garaikidean. Bigarren horretan, zalantzarik gabe, estatu aparatuaren krimenen papera azpimarratu beharko litzateke (paramilitarrenak, askotariko poliziek eragindakoak, tortura...), estatu zentralak halakoei ezikusia egiteko duen joera orekatze aldera. Baino betiere, historiarekin orrialdea bizkorregi pasatzeko tentazio usu presenteegiaren aurrean, ETAk eta bere inguruak gatazkan izan zuten erantzukizun nagusiaren perspektiba galdu gabe.

Planteatzen dudana, maila sozioekonomikoan, ez doa, ohartuko zinetenez, II. Mundu Gerraren ostean nagusitu zen kudeaketa keynestarraren eta ongizate estatuaren eraikuntzaren printzipioetatik harago, hazkunde etengabearren fetitxoa abandonatuta, hori bai (AHTa eta antzeko azpiegitura faraonikoen alorrean atzerapauso nabarmenak eman beharko lirateke, alde horretatik), eta egungo globalizazioak ezartzen dituen erronkak eta mugak gogoan hartuta. Hots, erro historiko demokristau eta sozialistak bide dituzten gobernuko partiduek onartzeko erraz samarra izan beharko litzatekeen zerbait.

Baina ez dakit, azken batean, nahikoa errelista izaten ari naizen... **A**



# EUSKARALDIA

## Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

iratINK



Azaroaren 20tik abenduaren 4 arte euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan hitz egiteko aukera eskainiko digu Euskal Aldaldiak. 15 egunez kontrola hartu eta rola hautatuko dugu: mingaina aktibatu edo belarriak zorroztu. Baino aktibazioak badu etorkizunik interpelaziorik gabe? Bidegurutzean omen gaude. Hala uste dute Kike Amonarriz Gorria Euskaltzaleen Topaguneko Lehendakariak, Lorea Agirre Dorronsoro Jakin aldizkariko zuzendariak eta Pello Igeregi Santamaría ELAKo euskara arduradunak.

#### NAGORE URIARTE

“Ezin badut dantzatu, ez da nire iraultza”, zioen Emma Goldman (1869-1940) pentsalariak borroka eta plazera uztartzearen beharra aldarrikatuz. Feminismoak berreskuratu du esaldi horren esentzia baina euskalgintzak ere edan dezake iturri horretatik. Euskal Aldaldiak laster piztuko du bozgoragailua. Ia-ia martxan da jaia. Euskaldunok ahoa bizi eta mingaina dantzan izango dugu; musika entzuteko belarriak ere prest. Ba al dago, ordea, gure gorputza eta hizkuntza astintzeko espazio nahikorik? 15 egunez euskaraz bizitzeko parada eskainiko digu Euskal Aldaldia, baina hamaika oztopo daude oraindik ere euskaraz egunero bizi ahal izateko. Zeintzuk dira gaur egun oraindik ere euskarak dituen erronkak?

ELAKo euskara arduradun Pello Igeregi gogorarazi du frankismotik gaur egun arte bi erronka nagusi ezarri zirela: alde batetik, euskaraz

hitz egiteko debekuak gainditzea; eta bestetik, ezagutza handitzea.

Bada, euskararen osasuna bi parametro horien bueltan neurtu dela uste du Igeregiak eta horrek “nolabaiteko konplazentziara” eraman dituela herritarra eta erakunde publikoak. “Bi helburu horiek hein handi batean bete dira: ezagutza handitu da, behintzat hezkuntza formalean, eta euskaraz hitz egiteko debekuak desagerrarazi dira. Horrek dena eginda zegoenaren sentsazioa piztu digu behintzat EAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian errealtitatea oso bestelakoa delako”.

Bere aldetik, Lorea Agirrek argi dauka azken 40 urteetan urrats handiak egin direla euskalgintzan. Orain 50 urteko hainbat hipotesi, ordea, gauzatu ez direla gogorarazi du, besteak beste, ezagutzak erabilera ekarriko zuenaren mantra.

#### Bidegurutzean

Amonarrizek uste du bidegurutze batean gaudela une honetan. “EAEn eta Nafarroako iparraldean neurri handi batean 25-30 urte azpikoenean ezagutzaren unibertsalizaziora heldu gara, bere gabeziekin. Horrek adin tarte horretako gazteak lan mundura inkorporatzeko aukera



**Igeregi:** “Tenemos que convertir la voluntad de las empresas en obligaciones: por ejemplo, que todas las empresas cuenten con un plan de euskera”



Ezkerretik eskuinera: Pello Igeregi (ELA), Lorea Agirre (Jakin), Kike Amonarriz (Euskaltzaleon Topagunea) eta Leire Txakartegi (ELA).

berriak sortu ditu, baina orain erronka beste bat da: hurrengo 10-20 urteetan ezagutzaren unibertsalizaziora heldu den belaunaldi horrek erabileraren aldeko urrats nabarmenak ematea. Lortu ezean, hurrengo belaunaldiak ikusiko du guraso guztiak euskaraz badakitela baina ez dutela erabiltzen, eta orduan esango dute: ‘honek zertarako balio dit niri’?.

Bat dator denak euskararen osasuna neurteko parametroak zaharkituta geratu direla. Izen ere, egun bada mundu osoa hankaz gora jarri duen faktore berriek: lehenik eta behin, euskararen despolitizazioa; bigarrenik, neoliberalismoak ekarritako individualismo bortitzta; eta hirugarrenik, euskara politikoki zuzena denarekin lotzeko joera.

### **Euskararen (des)politizazioa**

“Susmoa daukat garai batean euskararen biziraupena Euskal Herriaren biziraupenarekin lotzen zela”, dio Igeregik euskarak egun bizi duen despolitizazioaz ari denean. Gaur egun, ordea, ez dago hain argi. “Euskara bizi bada militantziagatik da, erdaraz

bizitza euskaraz bizitza baino askoz errazagoa baita gutako %99arentzat”.

Globalizazioak erronka berriak ekarri dituela aitortzen du Amonarrizek, azken 20 urteetan munduko hizkuntza guztiak baldintzatu dituzten aldaketak bizi ditugula gogoraraziz: aldaketa teknologikoa, ingelesaren orokortzea, migrazioa...

“Eurovisionen Errusiak ingelesez kantatu zuenean neure buruari esan nion: ‘mundua aldatzen ari da! ’”.

70-80. hamarkadan euskalgintzako eztabaidak elebitasun/elebakartasun terminoetan egiten zirela ekarri du gogora. “Dagoeneko ez dago ez gazte elebakarrik ez elebidunik ere, gazte eleanitzak dira gehienak, eta horrek munduarekiko eta hizkuntzekiko jarrerak aldatu ditu”.

Amonarrizen ustean, inoizko aukera onenak ditugu norabide bat hartzeko, baina arrisku latzak ere kontrako bidetik jotzeko: bidegurutzean gaude, alegia. Gauzak horrela, bi urrats nagusi egiteko unean garela dio: hasteko, herritarren eta gizarte sektorean kontzientziazioa eta inplikazioan sakondu, eta hemen sartzen da aipaturiko euskararen politizazioaren beharra; eta bigarrenik, botere publikoen eta eragile administratiboen inplikazioa, behar diren baliabideak eta politikak implementatu ditzaten.

### **Ahalduntzetik interpelazioa**

Hain zuzen, horiek biak dira Euskaraldiaren helburu nagusiak. Lehenengo edizioan norbanakoentzako kompromisoa, ahalduntzea eta kontzientziazioa zen erronka eta helmuga. “Batek, kontzientziazioa eta ahalduntze masiboa da

---

**Igeregi:** “Existen tres factores clave en este momento: la despolitización del euskera, el auge del individualismo impulsado por el neoliberalismo y la tendencia a unir el euskera con lo políticamente correcto”.

---



**Amonarriz:** “Nos encontramos en una encrucijada: se requiere de concienciación e implicación ciudadana, pero también de la implicación de los poderes públicos para que implanten medidas efectivas”

Euskaldia eta horrek ekarri du jende askorentzat bere hizkuntza portaeren kontzientziazio eta problematizazioa: ‘euskaraz egin dezaket eta ez dut egiten’. Berrikuntza izan da Euskal Herri osoan egitea. EAEn, Nafarroan eta Iparraldean egiteak herri ikuspegia eman dio: herri bat ikusi da, zazpi probintziez osatutako herria”.

Halako ariketa kolektiboek gure eskubideez jabetzera garamatzatela txalotzen du Lore Agirrek. “Geure buruari galdera zuzena egitera behartzen gaitu: hiritar-eskubideak izateko, gure eskubide eta hautu linguistikoa non oztopatzen da? Non ezin dugu erabili? Galdera horrek balio digu jabetzeko hizkuntza gatazka bat badagoela eta horren aurrean eragiteko”.

Jakineko zuzendariaren iritziz, badago goia jo dugunaren sentsazioa. “Erresistente konformistak gara, hor gaude, baina badakigu topea jo dugula. Euskara hizkuntza ofiziala da EAEn, ados, baina ez dago modurik ofizialtasun horrek dakartzan eskubideak inori exijitzeko eremu handi batean. Ez dago berdintasun errealik, gatazka bat dago: hizkuntza hegemoniko bat dago eta bestea zapalduta dago”. Euskaldia horretaz jabetzeko parada ematen digula dio Agirrek, beste 200.000 lagun ari baitira norberarekin batera euskaraz.

Amonarrizek azaltzen duenez, herritarren ahalduntzeaz haratago, bigarren edizio honetan beste urrats bat egin dute antolatzaleek: entitateak, gizarte eragileak eta erakunde publikoak interpelatu dituzte. Hortaz, erakunde publikoek, eragile sozialek, enpresek, kultur elkarteeek... parte hartu dezakete. “Ariguneek erakunde eta enpresa bakoitzা ispi luaren aurrean jartzera behartzen du: agerian geratzen da zein baliabide dituen, ea gaia nahikoa landu duen edo ez, zer perspektiba duen etorkizunerako... Lanketa hori esparru administratiboan, lan munduan... egiten ari da eta aktibazioa dakar”.

Azken ideia horri tiraka, Agirre sinetsita dago berdintasunarekin ez bezala, euskararekin ez garela oraindik gutxieneko diskurso batera heldu. Dagoeneko inork gutxik jarriko luke zalantzan, behintzat publikoki, berdintasunaz ari garenean giza eskubideez ari garela. “Inor ez da ausartzen publikoki berdintasunaren kontra agertzen. Azaleko konpromisoa dela esan bagenezake ere, behintzat argazki horretan atera behar bat badago. Euskararekin ez gaude hor, horren azpitik gaude”.

### Kontsentsua vs pribilegioak

Zoru komuna eraikitzeaz mintzo dira. “Atera dezagun euskara konfrontazio politikotik eta eraiki dezagun zoru komuna. Zoru

horrek aktibazioan eta aurrera begirako erabaki konkretuetan oinarritura egon beharko du; aukera eman beharko du hizkuntza politika orokor indartsua lortzeko. Ezinbesteko da euskara sestratik ateratzea eta oinarrizko kontsentsu batzuetara heltzea”, aldarrikatzen du Topaguneko zuzendariak.

Agirre bat dator desiragarria dela zoru komuna eraikitzea, baina kezkaz bizi du zoru hori ez ote den beti minimoetara mugatzen, are gehiago, ez ote dugun herritarrok ere onartzen gutxienekoa besterik ez dugula lortuko. “Lagarde antropologo feministak zioen feminismoan aldiro-aldiro ari garela gutxiegitasuna negoziatzen, badakigu gutxiegi izango dela, minimotik behera; pixka bat gorago edo beherago baina beti subalternoak izango gara. Euskararekin ere gauza bera gertatzen da”.

Bere esanetan, Euskaldia ez du funtzionatuko 20 urtez boluntarismo hutsean oinarritura, eta hizkuntza politiketan saltoa ematea eskatzen du. “EAEn euskara hizkuntza ofiziala bada, enpresatan arau batzuk ezarri beharko dira, obligazio batzuk euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzeko. Berdintasun kuotak lortzeko exijentzia batzuk egon beharko dira, gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko auzian bezala, hizkuntzan ere. Sentsazioa daukat une honetan euskalgintza apal dagoela aldarrikapen honetan”.

Zentzu horretan, errebindikazioak lortzeko neurri zehatzak planteatu behar dira. “Euskararen alde egingo





dugu, bai, baina zer eskatuko dugu, zehazki? Neurri lorgarri eta ulergarriak behar ditugu”, laburbiltzen du.

Eta neurri zehatzak adosteko, urrats ausartak eman behar direla baieztatzen du. “Desiragarria da zoru komuna izatea, kontsentsua, baina horretarako norbaitek pribilegioak utzi behar ditu, eta asko ez daude prest horretarako”. Norabide horretan, EAEko gobernu osatzen duten bi alderdiak bide horretan interpelatzaez ezinbestekotzat jotzen du. “Norbaitek pribilegioak itxi behar ditu, baina egun EAEn gobernu osatzen duen PSE-EEk euskara pribilegiotzat du bere kanpaina politikoetan. Ze zoru komun dago hor? Nola lortuko dugu zoru komuna interpelazioik gabe, norbaiten eskubideak urrezten ari direla esan gabe?”.

Agirreren esanetan, Euskalaldiak dituen gauza on guztiak aprobetxatu beharko genituzke urrats bat gehiago eman eta kontziente izateko, funtsean, botere harremanez ari garela.

Kontua da: horretaz jabetzeak ezinbestean garamatza talkara? Akaso, 1955eko abenduaren 1ean, Alabaman, autobus publiko batean zihoaala bere eserlekua gizon zuri bati uzteari uko egin zion Rosa Parksek hasitako bideari ekin beharko litzaioke euskalgintzan ere?

### Talkak

“Konfrontazio gabe ez dakit noraino iritsi gaitezkeen”, aitortzen du. “Hizkuntzak interakzioa eskatzen du,



**Agirre:** “Se nos reconoce el derecho a vivir en euskera, pero no aceptan que eso merme el derecho de quienes deciden no aprender nuestro idioma. En la práctica resulta inevitable: tus derechos chocan de frente con las obligaciones de otra persona”

komunitatea da, beste norbait behar duzu, gutxienez, ulertuko zaituena, nahiz eta beste hizkuntza batean erantzun. Hortaz, ez dakit konfrontazioa ez ote den beharrezkoa”.

Bide horretatik, feminismoak aspaldi emandako urratsa dela gogorarazi du. “Feminismoak interpelazio zuzena egiten du: nik eskubiderik ez badut, nork du pribilegioa? Zuk. Zuk ez didazu uzten nire eskubidea praktikara eramaten, beraz, botere harreman bat dago, norbaitek eskubiderik ez badu, beste batek pribilegioak dituelako da. Interpelazio hori euskalgintzan oso lausotua daukagula uste dut eta gurera ekarri beharko genuke”.

Igeregi bat dator. “Euskaraz bizitzeko eskubide orokorra onartzen digute, bai, baina ez digute onartzen horrek eraldunaren eskubideekin talka egitea. Baina

praktikan norberaren eskubideek bestearen obligazioekin topo eta talka egingo dute, ezinbestean”.

Euskalaldiak gatazka linguistiko hori azaleratu duela dio Amonarrizek. “Finean, ‘lehen hitza euskaraz egizu!’ ari gara esaten, horrek suposatzen duen guztiarekin. Izandako lorpenik handienetako bat da lehen gutxi batzuk egiten genituen ekintza batzuk masifikatza eta onartzea. ‘Hau egin daiteke!’ esatera pasatu gara. Hor gatazka eta ahalduntzea dago”. Bere aburuz, aktibismo linguistikoaren garapen eta zabaltzea ekarri beharko du horrek.

### Interpelaziorantz

Ahalduntzetik interpelaziora salto egiteko unea heldu dela uste du Igeregi. “Mundua zeharo aldatu da eta euskaraz bizitzeko aukera mugatuta dago mila elementu estruktural ezberdinengatik:

**Agirre:** "Necesitamos exigencias concretas: ¿Único modelo D?, ¿Que la enseñanza de euskera para adultos sea, de una vez por todas, gratuita?"

aisialdia nola dagoen antolatuta, komunikabideak nola dauden banatuta... Ez da posible hizkuntza politika serioak egitea ez badira transbertsualak, ez badira politika guztietai eragiten duten politikak; ez da posible garapen ekonomikoan euskara aintzat ez hartzea... Bainan bitartean erakunde publikoek ni errudun sentiarazten naute. Debeku formalik ez dagoenez, euskara ez erabiltzea nire errua omen da. Eta beldur naiz Euskaraldiak ez ote duen hori nolabait zabaltzen. Azken finean, Belarriprest eta Ahobizik elkarrekin negoziatzen dute zein hizkuntza erabiliko duten, eta badirudi gu bion arteko arazoa dela, ez dagoela problema estructuralik. Jaurlaritzak asko elikatu du diskurtso hori".

Agirrek ozen dio kontua ez dela 10 egunez euskaldun eta

euskaltzaleon arteko burbuila bat eraikitzea. "Euskaraldiak botere harremanak agerian uzteko ere balio behar du. Balio dezake ohiturak aldatzeko, baina beste leku batetik ere ohiturak aldarazi beharko dira. Zer proposamen zehatz egingo dizkiegu erakunde publikoei? Hezkuntzan D eredu bakarra eskatuko dugu? Edo euskalduntzea aukera unibertsala eta doakoa izatea behingoz, espainolekoan den bezala?"

"Migrante bat badator Euskal Herria eta espanolez ez badaki, Euskal Herriko txoko guztietai izango du gaztelania doanik ikasteko aukera. Hori harrera obligatua egitea da. Inork ez du esaten española inposatu egiten denik. Senegaldik datorren bati ez zaio española inposatzen, baina euskara bai? Neutroa jotzen


dugun hori desmuntatu behar da eta ustezko neutraltasun horrek injustizia handia ezkutatzen duela ulertarazi. Eta hemen berandu gabiltza", uste du Agirrek.

Bere iritziz, ohartu behar gara linguistikoki bigarren mailako hiritarrak garela, beti ere, interpelazioa nori egin behar diogun argi izanda. "Ez da buruz buru konfrontatzeko harreman bat, euskaldunak versus erdaldunak, baizik demokraziaren, berdintasunaren eta justizia sozialaren aldekoak eta kontrakoak zein praktika diren argi izatea. Zein praktika dira justizia sozialean sakontzen dutenak hiritar eskubideak egikaritu ahal izateko euskaraz? Hori jarrera politikoa hartzea da, eta kontzientzia politikoa garatzen duzunean, hau da, zure



#### BELARRIPREST

Belarriprest entiende euskera, aunque no lo hablará en todos los casos. El requisito mínimo es entender el idioma y pedir de forma explícita que le hablen siempre en euskera. Desempeña una función muy importante a la hora de impulsar conversaciones en euskera y crear un ambiente distendido.



#### AHOBIZI

Quienes decidan ser Ahobizi adoptarán una actitud activa durante 15 días. Se trata de analizar las prácticas lingüísticas de su entorno y optar, en los casos en los que se den las condiciones, por comunicarse en euskera. Hablará en euskera en todas las esferas, en todas las ocasiones y con todas las personas que pueda. Si ambas partes entienden, no hay motivo para no hablar en euskera.



#### ARIGUNEA

Este año también podrán participar entidades de todo tipo que cuenten con algún punto de encuentro. Los lugares de práctica -arigune, en euskera- son lugares en los que está garantizada permanentemente la posibilidad de comunicarse en euskera, bien sea dentro de la entidad (barne ariguneak) o en las relaciones de la entidad con la ciudadanía (kanpo ariguneak).



eskubideak praktikara eramaten dituzunean, gatazka sortzen da eta eskubideen aldeko gatazka horretan egotzikoz dizute feministaz izatetik 'feminazia' izatera pasatzea, eta euskaltzale izatetik inposatzaile izatera pasatzea. Horrek adierazten digu hor dagoela pribilegioa, eta hor borrokatu beharreko eremua".

### Euskara agenda politikora

Bere ustez, aktibazio soziala behar da, baina baita exigentzia politikoa. "Herritarron aktibazioak bide laburra izango du ez badaude hizkuntza politikak, edo estatu politikak; alegia, obligazioak markatuko dituzten politikak, eta horrekin betebehar horietara iristeko bideak eta laguntzak emango dituztenak. Arautu eta behartu behar da eta, noski, horra iristeko erraztasunak eman ere: berariazko espazioak, denborak, programak eta politikak Euskal Herriko toki ezberdinetan. Susmoa daukat ahul samar gabiltzala honetan", kexu da.

Amonarrizen aburuz, Euskal Herria egingo du baldin eta euskararen alde egiten duten enpresa, erakunde, elkartea eta establezimenduetan euskararen aldeko pauso konkretuak ikustarazten eta denboran luzatzen badira, bestela zentzua galduko du.

"Hau ez da euskararen aldekoratuna erakusteko kanpaina bat, baizik eta ariketa sozial inplikatzailea. Eta hori bada akiuilu eta presio aurrera egiteko. Euskararen gaia erdigunera

eramateko saiakera bat da, euskara oraindik periferian dagoelako; ez dago kezken, arduren, politiken, agenda soziopolitikoaren erdigunean". Gauzak horrela, jauzia egin behar da. "Hau ez da Kultura Sailaren ardura bat, gobernu osoaren, eragile soziopolitikoaren eta herritarren implikazioa beharko da".

Baikorra da. Errealitatea aldatzeko palankak sortzen ari direla sinetsita dago, enpresetan, erakundeetan... Hori esanda ere, argi dauka Euskal Herria ez dela gaitz guztien ukendua. "Zailtasun diskurtsibo, praktiko eta humanoak baditugu: nola uztartu elkarlana eta aldarrikapena? Nola iritsi belaunaldi gazteetara? Migratuengana? Euskal Herria lagundu dezake bideak zabaltzen baina ezin du dena konpondu. Euskal Herria hizkuntza politika orokor baten atal bat da".

### Euskarazko eskaintza

Neoliberalismoaren sakontzeak euskara ere kolpatu duela uste dute denek, besteak beste, individualismoa nagusitu duelako.

Kontsumoak gure bizitzak baldintzatzen dituen garaiotan, gazteei egiten zaien eskaintzak berebiziko garrantzia dauka. Bidegurutzean gaudela uste du Amonarrizek, hurrengo belaunaldietarako helburu komunak zehazteko premian, hain zuzen ere. Orain arte baliabide guztiak hezkuntzan

**Amonarriz:** "La gran mayoría de jóvenes son capaces de entender euskera. Por lo tanto, ha llegado el momento de ofrecerles servicios y productos que puedan consumir íntegramente en euskera".

jarri ditugu, hala behar zuelako euskalduntze kopurua handitzeko.

Baina, behin helburu hori lortuta, orain zer? Amonarrizek azaltzen duenez, berrindartu eta jauzia egin behar da eremu ez formalean – eskola ez delako nahikoa -, eta euskarazko eskaintza zabaldu.

"Egun gazte gehienak euskara ulertzeko gai badira, ahalik eta eskaintza zabalena egin behar zaie euskaraz. Haur eta gazteei zuzendutako zerbitzuak, produktuak eta eskaintza gehiena euskaraz egin daiteke problema gabe EAEn eta Nafarroa iparraldean. Hor jauzi handia eman daiteke nahiko epe motzean eta hori eskatzen diegu erakundeei".

Agirrek ozen dio eguneroko bizitzak sortzen dizkigun galdera, kezka, praktika eta diskurtsoei erantzuteko gai izan behar dela euskara.

"Belaunaldi berrieta euskara bitala izatea nahi badugu -bitala bizirik dagoen zerbaite eta eurentzat bitala den zerbaite- Euskara zeri lotuta egon behar da? Bizitzari lotuta edo eskolari, hezkuntzari, akademiaren aginteari edo bizitzari? Bizitzari lotuta egoteak esan nahi du gure kezken, desioen eta bizibideen soluzioa euskaraz lortzen asmatu behar dugula".

Erronka handiak izanik ere, baikorrak izateko moduan garela uste du Amonarrizek. "Partidak, gerrak eta grebak jarrera positiboarekin irabazten dira". Hala gerta dadila garaipen guztieta. **Euskal Herriko leloak dioen bezala: gehiago, gehiagorekin, gehigotan.** □

# Euskaldunizar el mundo laboral

Además de reforzar, más allá de la escuela, el ámbito no formal (tiempo libre, consumo...), Amonarriz pone sobre la mesa un segundo reto a alcanzar a corto plazo: insertar y fortalecer el euskera en el ámbito socioeconómico, es decir, garantizar que también se pueda trabajar en euskera. “La pregunta es sencilla: ¿para qué han cursado sus estudios en euskera las nuevas generaciones si después ven mermado su derecho a trabajar en su lengua? Se dan las condiciones para dar el salto”, asegura.

Al hilo de lo anterior, Igeregi considera necesario hacer autocrítica en el sindicato. “Cuando a un trabajador o trabajadora le bajan el sueldo un 10%, nadie duda de que se trata de una opresión, pero cuando nos niegan la posibilidad de trabajar en euskera no entendemos que eso también lo es. El sindicato tiene un gran reto en ese sentido. Por eso, queremos convertir

la voluntad de las empresas en una obligación. Queremos aprovechar el Euskaraldia para retornos y autoexigirnos objetivos medibles: por ejemplo, conseguir que sea obligatorio poner en marcha un plan de euskera en todas las empresas”.

Aun comprometiéndose a ello, reconoce que es una ardua tarea. “ELA pretende organizar los sectores más precarios y, por supuesto, queremos hacerlo en euskera, pero somos conscientes de que estos sectores, al igual que las zonas más pobres, son los más castellanoparlantes. Tenemos que ir ahí, organizarles y hacerlo en euskera”.

En la misma línea, muestra otra preocupación. “Estamos centrados en los espacios y sectores más precarios y la mayoría de esta militancia es castellanoparlante. Aún así, tenemos que ser capaces de convertir el euskera en un instrumento de lucha”, asevera. □



**Andy Robinson**, autor de 'Oro, petróleo y aguacates. Las nuevas venas abiertas de América Latina'

# “Cuando baje el Covid, preveo nuevos estallidos sociales en América Latina”

Texto: GORKA QUEVEDO Fotos: Davide Cabaleiro

En 2021 se cumplirán 50 años de la publicación de 'Las venas abiertas de América Latina'. Aquel libro de Eduardo Galeano se convirtió en una especie de Biblia para la generación de izquierdas que alcanzó el poder en esa parte del mundo a principios del siglo XXI. Durante estos últimos años, el economista y periodista Andy Robinson (Liverpool, 1960) ha recorrido América Latina como corresponsal de La Vanguardia. Un recorrido que le ha servido para publicar en marzo del 2020 'Oro, petróleo y aguacates. Las nuevas venas abiertas de América Latina', libro en el que a través de diferentes crónicas periodísticas relata cómo una docena de materias primas explica los últimos golpes de estado, las rebeliones ciudadanas y la crisis medioambiental en América Latina.



**»Recorres Potosí, Minas Gerais, Zacatecas y muchos otros de los itinerarios que ya recorrió Eduardo Galeano cincuenta años atrás. ¿Qué diría Eduardo Galeano si hoy escribiera ‘Las venas abiertas de América Latina’?**

Probablemente pensaría que, a pesar de los grandes logros de la *Marea Rojiza*, de los gobiernos progresistas que comenzaron más o menos en 1999 con Hugo Chávez y luego con Evo Morales o Rafael Correa, sacando de la pobreza a 60 millones de personas en América Latina durante esa década, hubo un fallo del modelo, y ese fallo tiene que ver con las venas abiertas.

De este libro se pueden extraer dos elementos que Galeano habría reivindicado como necesarios para el desarrollo equitativo de América Latina. El primero sería reivindicar la necesidad de romper los lazos de dependencia con las potencias coloniales y grandes multinacionales, para tener un modelo de desarrollo propio. El segundo, dejar de depender de la exportación de materias primas en su estado elemental. Los gobiernos de Brasil, Venezuela, Bolivia, Ecuador o Uruguay consiguieron romper con la primera exigencia. Rompieron esos lazos y crearon sus propias empresas, bien públicas o bien nacionales pero, digamos, controladas por el Estado. Sin embargo, lo que no hicieron fue conseguir una fórmula para industrializar, de alguna manera, el proceso de exportación.

Por lo tanto, creo que Galeano diría que no consiguieron transformar sus economías. No evitaron que cuando terminó el super ciclo de quince años de precios altos en los mercados internacionales de materias primas (en 2013-2014 se desplomaron los precios del petróleo, de soja, hierro, cobre, minerales...), todas esas economías se vinieran abajo. Eso pasó factura política, y la mayoría de esos gobiernos cayeron también.

**»Aquel libro partía de una idea: «los latinoamericanos somos pobres porque es rico el suelo que pisamos». ¿La frase sigue vigente?**

Los recursos naturales son una gran riqueza pero, cuanto más ricos son en recursos subterráneos y naturales estos países tienen la tentación de basar su crecimiento en la extracción de esos recursos y en su exportación a los países más industrializados. Galeano decía que ésa era una paradoja de América Latina, que su propia riqueza se había convertido en un lastre para su desarrollo.

---

“Eredu neoliberal batera itzuli gara ekonomian, baina iragana ere esparru politikora itzuli da. Estatu Kolpeak modan daude berriro Latinoamerikan. Kolpe kamuflatuagoak dira, baina badaude”

---

Esa frase sigue siendo verdad. En muchos países ha habido gobiernos que han querido, de verdad, combatir los problemas estructurales de América Latina, es decir, la extrema desigualdad y la pobreza endémica. Esos gobiernos han hecho políticas de transferencia de renta desde el Estado a esos sectores más necesitados, utilizando las rentas de la exportación de materias primas. Ésta es la diferencia respecto a los gobiernos anteriores, que jamás intentaron hacer una distribución de la riqueza.


En Venezuela la exportación de petróleo era utilizada para enriquecer aún más a una élite corrupta, y Chávez supo canalizar las rentas de la exportación del petróleo venezolano de una manera espectacular, consiguiendo avances en las condiciones de vida de las capas sociales más necesitadas. El chavismo consiguió darle la vuelta y comenzó a combatir esa situación de manera admirable, pero lo hizo con las rentas de una bonanza petrolera en la cual el barril de petróleo había llegado a 120-130 dólares. Cuando cayó ese precio se puso todo en entredicho y, además, les hizo muy vulnerables a políticas golpistas elaboradas en los Estados Unidos de América.

**»Aquellos gobiernos no rompieron con un modelo económico tan dependiente de las materias primas y de la oscilación de los precios en los mercados internacionales, lo que suponía una enorme limitación para su soberanía. ¿Por qué? ¿Fue más un no querer o un no poder?**

La izquierda latinoamericana ha sido siempre muy consciente de la necesidad de recuperar la soberanía nacional. Todo el desarrollismo estaba basado en proyectos nacionales. Esto es parte de la filosofía de la izquierda en América Latina desde hace siglos. Entonces, ¿por qué no lo hicieron? Lo primero es reconocer que no es nada fácil. En los años 50, 60 ó 70 muchos países consiguieron industrializar sus economías mediante políticas de sustitución de importaciones, de políticas estatales para proteger determinadas industrias. Sin embargo, a partir de los años 70 el neoliberalismo acabó con esto.



“Latinoamerikako aberastasuna bera oztopo bihurtu da bere garapenerako. Herrialde askotan gobernu batzuek benetan aurre egin nahi izan diete egiturazko arazoei, hau da, muturreko desberdintasunari eta pobrezia endemikoari. Horretarako, errenta transferitzeko politikak egin zituzten Estatutik premia handiena zuten sektore horietara, lehengaien esportazioaren errentak erabiliz. Hori da aurreko gobernuekiko aldea, inoiz ez baitziren saiatu aberastasunaren banaketa egiten”



Cuando la izquierda de la llamada *Marea Rojiza* llegó al poder, gran parte de esa industria había sido desmantelada como consecuencia de ese proceso de desindustrialización. Un claro ejemplo lo tenemos en Brasil, donde se desmanteló o privatizó la industria, vendiéndola a empresas extranjeras. La izquierda llegó al poder al inicio de esa balanza de altos precios de las materias primas. Por un lado, tenían la tentación de tener acceso fácil a divisas simplemente optando por monocultivos. Probablemente fue una tentación difícil de resistir.

La última vez que fui a Ecuador hablé con uno de los últimos ministros de economía del Gobierno de Rafael Correa. Me dijo: “No quisimos optar por el modelo chino, en el sentido de tener que pasar 20 años de mano de obra esclava para poder llegar a un nivel de desarrollo que nos permitiera luego llegar al nivel de las economías más avanzadas. En lugar de usar mano de obra barata utilizamos el petróleo y algunos minerales de exportación”. Claro, se entiende que optaran por

eso, y en Ecuador tuvo excelente resultados. Hicieron una gestión muy inteligente, con inversiones en infraestructuras, etc. Pero cuando se desplomó el precio del petróleo o de minerales como el cobre o el níquel, también se puso fin al proyecto de Correa.

Lo difícil es elaborar un modelo alternativo: el viejo desarrollismo basado en la industrialización, en la creación de industria manufacturera como se hizo en Corea o China utilizando el Estado para proteger determinadas industrias... Creo que esa opción no existe tampoco. En este momento las cuestiones medioambientales van a obstaculizar cualquier proyecto de seguir por el mismo camino.

»Ahora en muchos de esos países gobierna o bien la derecha o bien la extrema derecha. ¿En qué han cambiado estos gobiernos el continente en cuanto a su relación con esas materias primas?

Aunque no se rompiera con la dependencia de las materias primas, había unos gobiernos muy comprometidos con la necesidad de utilizar las rentas para combatir la pobreza e invertir en servicios públicos. El objetivo era, utilizando durante un tiempo esas rentas extractivistas, saltar a otra fase de desarrollo. De ese modo se pretendía mejorar los niveles de educación y formación e invertir en determinadas tecnologías. En Brasil, por ejemplo, con Lula se hicieron inversiones en Investigación+Desarrollo.

Ahora estamos otra vez en la fase de un sistema basado en la explotación, en muchos casos por parte de empresas extranjeras. El pasado ha vuelto de manera muy siniestra a América Latina de la mano de un extractivismo multinacional en la agroindustria con la soja, o en la energía con la privatización de Petrobras, en Brasil.

Estamos de vuelta a un modelo neoliberal en la economía, pero también el pasado ha vuelto en el ámbito político. Los golpes de estado vuelven a estar de moda en América Latina. Son golpes algo más camuflados, pero están. Evo Morales tuvo que renunciar después de que el alto mando de la



*Andy Robinson cree que tras el Covid-19 las revueltas sociales se sucederán por toda América Latina. En la imagen, una de las muchas movilizaciones que durante 2019 se realizaron en Chile.*

Fuerzas Armadas le sugiriera que renunciara. Pese a que muchos medios de comunicación y gobiernos en Europa digan que no fue un golpe de estado, es obvio que lo fue. Lo mismo en Brasil. Una campaña judicial obviamente politizada acabó metiendo a Lula en la cárcel cuando era el candidato presidencial con más posibilidades de ganar. En Honduras también pasó algo parecido con el golpe Gobierno de Zelaya. Son golpes clásicos, lo que pasa es que nadie en su momento lo reconoce. Cuando en 2002 intentaron derrocar a Chávez se intentó maquillar el golpe de estado, con el apoyo de muchos medios de comunicación.

**»¿Qué se puede esperar de los movimientos populares que en 2019 protagonizaron grandes movilizaciones en Chile y Ecuador?**

No es tan hipotética una vuelta de gobiernos de izquierda a gran parte de los países de América Latina. Miremos a Bolivia. Luis Arce, candidato de izquierdas próximo a Evo Morales, que comparte muchos de sus puntos de vista, tiene posibilidades de ganar en la primera vuelta las elecciones del 18 de octubre, si le dejan. Porque esta es otra cuestión, si vamos a ver un segundo golpe de estado en Bolivia. (Nota; esta entrevista está realizada poco antes de esas elecciones. El candidato Luis Arce consiguió el 55,1 % de los sufragios en la primera vuelta).

La volatilidad de la política en América Latina es tal que no se sabe qué va a pasar. La pandemia del Covid-19 es durísima; ha habido manifestaciones multitudinarias de rechazo a las políticas de algunos gobiernos de derechas que habían sustituido a lo

que se llamaba la *Marea Rojiza*. En Ecuador hubo en 2019 movilizaciones campesinas e indígenas que salieron contra planes de ajuste del Fondo Monetario Internacional, y Lenin Moreno tuvo que dar marcha atrás.

Sin olvidar a Chile, cuya situación es muy interesante. Hay una movilización espectacular contra lo que ha sido el alumno estrella del neoliberalismo. Incluso el FMI reconoce la necesidad de combatir la desigualdad en Chile, país al que siempre ha considerado un ejemplo. En noviembre del 2019 salieron un millón de personas en protesta por el sistema de pensiones. Y todos no eran gentes de izquierdas, era el pueblo entero. El timo del sistema de pensiones es tal que la pensión media, siendo un sistema de ahorro forzado donde se tiene que ahorrar un 30% de la renta, es de 400 dólares al mes para esta primera generación que se está jubilando con este sistema.

La sensación de la gente es que están viviendo una estafa, un timo, que les están tomando el pelo en cada aspecto de la economía neoliberal. Y esto me parece muy interesante, porque creo que esa gente se ha dado cuenta de algo que en Europa aún no hemos interiorizado, que es que un sistema de supuesta libre competencia está siendo monopolizado por 4 ó 5 grandes empresas.

**»¿Ha aprendido la izquierda latinoamericana de esos errores?**

&gt;&gt;



La izquierda quedó dividida en América Latina. Por una parte, estaría la corriente que se basa en el crecimiento de la economía, en el crecimiento del PIB para combatir la pobreza, distribuir la renta... Por otro lado estaría la corriente más medioambientalista, basada más en la economía campesina, etc.

La sensación que traslado en el libro quizás no guste a nadie. Creo que hay que buscar un término medio, porque no tiene sentido que la izquierda esté tan dividida entre ambas corrientes, como se puede ver en el caso de Bolivia, cuya división posiblemente contribuyó a la caída de un gobierno de izquierdas, o de Ecuador, donde de cara a las elecciones de enero del 2021 un importante movimiento de indígenas va a votar a la derecha para que no vuelva el Correísmo. Eso no tiene ningún sentido.

**»América Latina es un foco continuo de tensión geopolítica. Los Estados Unidos vuelven a estar “interesados” otra vez en América Latina. Incluso hay quien dice que estamos en una nueva Doctrina Monroe. Sin embargo, hay otro actor que también está muy interesado en esos recursos naturales: China. ¿Estamos ante una nueva ‘Guerra Fría’?**

El discurso estadounidense es muy explícitamente anti-chino en América Latina. Creo que esto se debe, por una parte, a un interés electoral y, por otra parte,

a una ideología neoconservadora respecto a China como rival geopolítico. El discurso de Jair Bolsonaro también es significativo. En el libro lo analizo en el capítulo dedicado al niobio, un metal muy importante en la industria de Defensa y la Aeronáutica. Bolsonaro piensa que el niobio va a ser como el oro para Brasil, porque tiene las mayores reservas del mundo.

Bolsonaro ha utilizado la excusa del niobio para destruir las medidas de protección medioambientales y a los indígenas, pero también lo ha utilizado como parte de su discurso en favor de los Estados Unidos de América y contra China. China tiene varias empresas que trabajan con niobio en Brasil. Cuando Bolsonaro llegó al poder anunció que quitaría esas empresas chinas y que, en su lugar, pondría empresas brasileñas, pero luego se dio cuenta de que era imposible, por lo que dijo: “Pues entonces serán norteamericanas”.

Sin embargo, hay una realidad paralela a la política, y es la realidad económica. Ahora China es imprescindible para el funcionamiento de las economías latinoamericanas. China es el primer socio comercial en países como Brasil. Y esto va a más como consecuencia de la pandemia. China acaba de convertirse en el principal socio comercial de Argentina; antes de la pandemia era Brasil. O Chile, por supuesto, donde su principal fuente de inversiones es China también.

Estamos ante una enorme contradicción entre el discurso de Guerra Fría -en el que China es el enemigo-

---

"Txilen, 2019an manifestazio horiek guztiak egiten ziren bitartean, hainbat tailerretara joan nintzen. Bertan, jendeak kobrea esportatzeko ereduaren alternatibak aipatzen zituen, baita energia berriztagarrien ekoizpenean oinarritutako ekonomiak sortzearen garrantzia ere. Desentralizazio ekonomikoan, horrelako jende asko zegoen. Demokrazia asanblearioaren adierazpen txikiak ikusten hasi ziren"

---

y la realidad. Para acercarse al discurso geopolítico de Trump los gobiernos latinoamericanos han tenido crisis diplomáticas con China, pero enseguida se han dado cuenta que eso no es posible. Cuando el hijo de Bolsonaro afirmó que China era una dictadura, tuvo que rectificar como consecuencia de una reclamación del embajador de China. Bolsonaro se dio cuenta de que si querían intentar salir de la depresión económica en la que estaba Brasil, China era imprescindible. Cuando subastaron los campos petrolíferos de Petrobras, el gran proyecto de privatización del petróleo de Bolsonaro, las únicas empresas que participaron y que pujaron fueron chinas.

#### »Es fascinante esta contradicción...

Cuando la Doctrina Monroe se convirtió en realidad a mediados del siglo XX y los Estados Unidos se convirtieron en el poder hegemónico, también era la gran potencia económica. Ahora no es así. Si eres un gobierno latinoamericano y haces lo necesario para ser aliado de los Estados Unidos enseguida chocas con los intereses económicos del país que va a comprar tu soja, tu hierro o tu petróleo, que es China.

#### »En el libro hablas de tus encuentros con diversas comunidades indígenas. ¿Qué podemos aprender de estos pueblos para afrontar retos como su propuesta de 'buen vivir' como alternativa al actual sistema capitalista neoliberal?

No es fácil ver una alternativa en América Latina. El libro puede parecer muy negativo y desolador al criticar el fallo del modelo sin plantear un modelo alternativo muy claro. Pero supongo que esto no es más desesperante que nuestra propia situación aquí (Europa). Estamos ante un reto universal.

Es posible que a partir de estos nuevos movimientos pasen cosas, como en Chile o Ecuador. Cuando la gente sale a la calle como en Chile y ves muchas banderas mapuches, es decir, la bandera de los indígenas chilenos, esto quiere decir muchas cosas. O en Ecuador, donde las personas que luchaban en la calle contra la policía antidisturbios o el ejército que disparaba balas eran mujeres aymarás del movimiento

indígena, mujeres que ni siquiera habían respondido a llamamientos de la CONAI, la Confederación de Nacionalidades Indígenas del Ecuador. Habían salido por su cuenta, y el liderazgo de la CONAI tuvo que seguirles, porque si no, su credibilidad se habría dañado demasiado.

En Chile, mientras se producían todas esas manifestaciones en 2019, acudí a diferentes talleres donde la gente hablaba de alternativas al modelo de exportación de cobre y de la importancia de crear economías basadas en la producción de energías renovables, en descentralización económica... Había mucha gente así. A partir de esa expresión ciudadana de protesta se empezaron a ver pequeñas expresiones de democracia asamblearia.

#### »¿Cuál puede ser la alternativa?

No tengo ni la capacidad ni los conocimientos para decir cuál es el modelo alternativo, pero estoy bastante convencido de que cuando tienes esa explosión de democracia algo sale. Por eso creo que a finales del 2019 pasó algo en América Latina que fue muy alentador, aunque luego llegó el Covid-19 con sus consecuencias, porque ya no se puede salir a la plaza a hacer la democracia asamblearia. Creo que cuando empiece a bajar el Covid-19 va a haber estallidos sociales en América Latina. El problema no es que ahora la gente se crea que el sistema funciona. Ahora el problema es cómo canalizar y lograr que el rechazo y el reconocimiento de que estamos ante una gran estafa se canalice para lograr un nuevo proyecto.

En Bolivia está la opción de la victoria de Luis Arce; en Chile me extraña mucho que el Gobierno de Piñera vuelva a recuperar su popularidad... El poder puede trasladarse rápidamente hacia el otro lado. Quizá la solución puede estar en lo que sucedió en Santiago de Chile en noviembre del 2019. Hablabas con taxistas de 60 años, que no eran en absoluto revolucionarios, pero parecía que se habían quitado un velo de los ojos y se habían dado cuenta de la realidad. ▲

# “Hondamendiaren mehatxua handia da, zerbait desberdina egin beharra dago”

Andy Robinson, kazetaria eta idazlea

G. Q.

Natur baliabideei erreparatzen badiegu, Latinoamerika lurralte oso aberatsa da. Bainan aberastasun hori oso era bidegabean dago banatuta. Egoera hori irauli asmoz, mende hasieran kontinentean boterea lortu zuten ezkerreko gobernuek sakoneko aldaketak gauzatu zituzten. Milioika lagun -60 milioi inguru- atera ziren pobreziatik; osasungintza eta hezkuntza bezalako sektoreetan izugarrizko aurrerapenak eman ziren; bizi-maila nabarmen igo zen makina bat pertsonentzat...

Lorpen horiek garai hartan nazioarteko merkatuan prezio izugarri altuak zituzten lehengaietan oinarritu ziren. Petrolioaren, gasaren, urearen edo mineral askoren prezioak izugarri jaitsi zirenean, herrialde horien diru sarrerak ere nabarmen jaitsi ziren. Eta, gainera, hairbat kasutan argi geratu zen natur baliabide horien esplotazioa ez zela bateragarria ingurumenaren jasangarritasunarekin.

Egoera horrek egun bizirik dagoen eztabaidea eragin zituen Latinoamerikako ezkerrean. Andy Robinsonek argi dauka ez dagoela ataka horretatik

ateratzeko formula magikorik. “Eduardo Galeanoren liburua irakurtzen baduzu, logika imperialista eta kolonialista bat ikusten da. Kapital-metaketak eta teknologia berrien eta kontsumitzaila klase ertain berri baten sorreraren arteko erlazioak nolabaiteko logika zuen Europako, Ameriketako Estatu Batuetako edo Japoniako herrialde garatuetan. Latinoamerika eta garapen bidean zeuden gainerako herrialdeak lehengai eta eskulan iturri gisa erabili ziren”.

## Hondamendiaren mehatxua

“Mundu aberatsaren hazkunde-proiektu batean sartzen zen dena. Noizbait ideologia liberal eta neoliberal bat landu zen, Latinoamerikako herrialdeek ekonomia aurreratuen urratsak

jarraituko zituztela planteatzen zuena, baina gero argi geratu zen hori ez zela egia. Ideologia horren arabera, konbergentzia bat egongo litzateke eta aldea itxiko litzateke; beraz, Latinoamerikak Europako edo Ameriketako Estatu Batuetako antzeko gizartea izango luke”.

“Orain hau behera etorri da, ez bakarrik Latinoamerikan, baita Europan ere. Ez dago klima-aldaketaren, planetaren kontserbazioaren eta bizitzari eustearen erronkari aurre egitearekin bateragarria dirudien proiektu ekonomikorik. Hortik hasi behar da. Argi dago ezin dugula berdin jarraitu, hondamendiaren mehatxua handia da, zerbait desberdina egin beharra dago”. □





## Zure iritzia nahi dugu jaso... Bidali [alda@ela.eus](mailto:alda@ela.eus) helbidera

Puedes hacernos llegar tus opiniones y sugerencias por email a [alda@ela.eus](mailto:alda@ela.eus), o por correo ordinario, enviando una carta a: **ALDA. Barrainkua 13, 48009 Bilbao**

# Javi Naveda, en el corazón: Adiorik ez!

Javi Naveda, histórico militante de ELA en el sector público, falleció recientemente, de manera inesperada, dejando un tremendo vacío en quienes tuvimos la suerte de conocerle. A continuación, algunos testimonios de sus compañeros/as.

### IÑAKI DE LA TORRE ·

Yo todavía no era más que un simpatizante de ELA cuando le conocí, en abril del 97. La Administración de Justicia de la CAPV empezaba unas tímidas movilizaciones en aras a conseguir una equiparación salarial con la Administración General Vasca, pero con muchas dudas y pocas esperanzas.

Javi, pese a no conocer el sector, fue elegido por el sindicato para prender la llama de la lucha entre un colectivo que no se caracterizaba por sus ganas de movilizarse.

Y lo logró, vaya si lo logró. A pesar de que ELA casi no contaba con representación en la Administración de Justicia, Javi lideró todas las asambleas que se organizaron a lo largo y ancho de la CAPV. Pese a todos los obstáculos, nos enseñó qué era el sindicalismo entre compañeras y compañeros y qué era la confrontación con la Administración. Y consiguió, con su forma de trabajar, que las movilizaciones fueran secundadas por la mayoría de las trabajadoras y trabajadores de la Administración de Justicia. Nos contagió el espíritu de la lucha y nos abrió el camino para que pudiéramos conseguirlo (...)



ánimo para seguir peleando, día a día, por mejorar las condiciones de vida de los trabajadores, a pesar de las dificultades.

(...) Tu entrega y lealtad absoluta al sindicato ha sido extraordinaria. No solo has trabajado a tope, sino que has formado a otros trabajadores para que siguieran tu camino, y hoy están en plena actividad con gran éxito.

Tu disponibilidad hacia tus compañeros ha sido total, y tienes el agradecimiento de todos nosotros; y qué decir de tu compromiso con los trabajadores/as tanto a nivel colectivo como individual. Todos eran importantes para tí, y así te lo reconocen hoy en día.

En fin, Javitxu, seguiremos juntos aunque te eche muchísimo de menos. Te quiero.

### GORKA MUÑOZ ·

(...) Conocí a Javi el 2007 ó el 2008, mucho antes de que me diese su confianza para ser delegado y posteriormente liberado de la Autónoma. Desde las mismas asambleas hasta los cafés compartidos te mostraban a un compañero capaz, decidido, inteligente, luchador y socarrón que contaba con un corazón que bombeaba generosidad para con todos los que nos acercábamos con la mínima consulta.

Fueron su apoyo, el teléfono permanentemente abierto y las visitas a nuestras oficinas las que nos movilizaron para lograr, no sin gran esfuerzo y tiempo, la homologación del personal laboral de Justicia.

(...) Esa generosidad y ese corazón eran lo que lo definía.

Con el tiempo, Javier y su círculo más cercano me apoyó para ser delegado y, posteriormente, liberado sindical. Ésta es, probablemente, la tarea más gratificante que he llevado a cabo, pero nunca me he sentido a la altura de las circunstancias teniendo a Javier como referente. (...).

Es difícil olvidar a alguien como él. Ha sido un privilegio contar con su confianza, amistad y cariño.

### MERCED VILLA ·

Hola Javitxu. Te tengo en mi memoria con tu cariño, tu sentido del humor, tu maravillosa ironía, tu sinceridad, tu apertura a los demás y tu entrega, sin esperar nunca nada.

Hemos compartido trabajo y compañerismo, pero también muchas y largas charlas comentando problemas personales, profesionales y de todo tipo: ¡Hemos arreglado el mundo tantas veces!. (...) Nos reíamos, sí, y nuestras conversaciones siempre acababan con una irónica sonrisa que nos daba

## Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak fiskalitatea aldatzea eta bizitza beste ezeren gainetik jarriko dituen aurrekontuak exijitzen ditu



Covid-19ak sortutako egoerak are ikusgarriago egin ditu egiturazko krisia (ekonomikoa, soziala, ekologikoa, zaintzarena) eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzen duten erakundeek, besteak beste ELAk, etengabe salatzen duten egoera hobetzeko beharrezko den eraldaketa soziala. Egoera iraultzeko ekimenaren ordezkariek agerraldia egin dute; fiskalitatean aldaketa bat eta bizitza beste ezeren gainetik jarriko dituen aurrekontuak exijitu dituzte.

### Las plantillas de Aernnova y Alestis piden a Lakua implicación para evitar los despidos en el sector

Las plantillas de Aernnova y Alestis están llevando a cabo numerosas movilizaciones en defensa de sus puestos de trabajo al tiempo que exigen implicación al Gobierno Vasco con este sector estratégico, que ha recibido numerosas ayudas públicas.

En este sentido, cabe recordar que ELA no ha aceptado el preacuerdo en Alestis ni el futuro ERE acordado por CCOO y UGT por entender que no sobra nadie, y anima a la plantilla a seguir luchando por su futuro y el de la empresa. En opinión de ELA, la situación de crisis es coyuntural, por tanto, las medidas han de ser coyunturales, y no estructurales y definitivas como quiere la empresa para sus manejos empresariales.

Horretarako, mobilizazio egutegi zabala aurkeztu dute. Mobilizazio hauek guztiak "Aberastasuna banatu, eskubideak bermatu, zerbitzu publikoak garatu! Lehenik bizitza!" kanpainaren baitan egingo dira. Izan ere, Maialen Aranburu ELAko Gizarte Ekintzako arduradunak azpimarratu duenez, ezinbestekoa da egungo politikak erotik aldatzea.

Kanpaina honen mobilizazio garrantzitsuenak:

- Interpelazio instituzionala. Nafarroa eta EAE-ko Gobernuei bilkurak eskatuko dizkiegu

aurrekontuen inguruko proposamen zehatzak egiteko

- Azaroaren 28an Iruñean manifestazioa. Azaroaren 19/ 26an ekimenak.
- Abenduaren 13an, Bilbo, Donostia eta Gasteizen manifestazioak. Abenduko lehen hamabostaldian ekimenak herrialde bakoitzean.

### Las plantillas de Matricería Deusto y GTS, en huelga indefinida en defensa de sus empleos

Los trabajadores y trabajadoras de Matricería Deusto y GTS se encuentran en huelga indefinida desde el pasado 9 de octubre en defensa de sus empleos y el futuro del sector de la matricería en Bizkaia después de que el grupo Gestamp haya ratificado su intención de cerrar ambas plantas. De consumarse esta decisión, supondría el despido de 230 trabajadores directos y otros tantos indirectos.

En la última reunión mantenida con la dirección de Gestamp, los comités de ambas plantas exigieron el cumplimiento de los acuerdos firmados por parte del grupo y, en consecuencia, la retirada de los expedientes de cierre. Asimismo, recordaron que los beneficios del Grupo durante 2019 alcanzaron los 211 millones de euros, por lo que consideran injustificado el cierre.



## Firmado un histórico convenio en el Metal de Gipuzkoa

Los trabajadores y trabajadoras del Metal de Gipuzkoa (en torno a 40.000 personas) ya tienen convenio tras una década sin ser renovado. Un acuerdo histórico por los contenidos del mismo y que desmonta la idea de que ELA no firma acuerdos sectoriales.

El acuerdo recoge, entre otros aspectos, incrementos salariales del 8,8% hasta 2019 en las tablas salariales (también en dietas, viajes, etc.) y del 0,8% en 2020 (en total, un 9,6%). Para 2021 y 2022 se garantiza el IPC para todas las empresas del sector (no devolución si el IPC es negativo); cláusula de inaplicación; ultraactividad indefinida (hasta ahora, no tenía); subrogación para las personas subcontratadas en mantenimiento, almacén y logística, limpieza industrial y instalaciones telefónicas; contratación por ETT de un año máximo así como mejoras en materia de flexibilidad, igualdad y licencias.

Los contenidos acordados colocan al convenio del Metal de Gipuzkoa como un referente indiscutible.

## ELAk ez du ITPren ERTE sinatu

Urriaren 16an amaitu zen kaleratze kolektiboaren kontsulta-aldia ITP S.A.U. enpresan, eta, tamalez, Estatuko CCOO eta UGT sindikatuen eta enpresaren arteko akordioarekin amaitu zen. 163 kaleratze adostu dituzte (behin-behineko kontrata duden 121 langile eta 58 urtetik gorakoentzako nahitaezko irteera pizgarriak), eta hurrengo 14 hilabeteetan langile guztiei eragingo dien ERE batekin konbinatu dituzte, gehienez 45 eguneko langabeziarekin langile bakoitzeko.

ELAk ez du ERTE sinatu horretarako arrazoirik ez dagoela uste duelako, epaitegiek prozedura bertan behera uzteko prozesua judicializatzea eragozten duelako eta Zamudioko langileen enpleguaren etorkizuna eta lan-baldintzak arriskuan jartzen dituelako.

## Baiko-ko pilotariek aldarrikapen gehienak lortu zituzten

Baiko-ko pilotariek aldarrikapen gehienak lortuz gero greba bertan behera utzi zuten urriaren 27an. Akordioak sektore guztian izango du eragina eta, beraz, Ligaren parte diren bi enpresaen izango da aplikagarria. Akordioaren parte izan dira, baita ere, ASPE enpresako pilotariak.

ELAk pilotariak zoriondu zien egin zuten borrokagatik. Borroka horren helburua, besteak beste, kolektiboaren prekarietate-arazoei aurre egitea eta inposaketan eta aldebakarrekotasunean oinarritutako lan-harremanekin amaitzea zen.

Prozesu horren emaitzak erakusten du oso garrantzitsua dela sindikatu batean antolatzea, baita kirol profesionalean ere, lan-baldintzak hobetzeko berme bakarra baita.

Agerian geratu da, haien borrokarik gabe, akordio hori ez zela existituko.

## Educación y Osakidetza -y sus subcontratas- así como los cuidados, en pie de lucha

Las trabajadoras y trabajadores de Educación han protagonizado una jornada de huelga así como manifestaciones y otras movilizaciones para exigir un retorno seguro y consensuado a las aulas, algo que a fecha de hoy no se ha conseguido. Por su parte, la plantilla de los comedores escolares han protagonizado tres días de huelga los días 21, 27 y 29 de octubre. Los sindicatos exigen a Educación respeto para este colectivo de trabajadoras subcontratadas así como la negociación de medidas que garanticen la seguridad necesaria, y el mantenimiento del empleo y de las condiciones laborales. Por su parte, limpiadoras subcontratadas de centros educativos denuncian su precariedad laboral y anuncian una intensificación de las movilizaciones.

La plantilla de Osakidetza ha sido llamada también a la huelga ante las graves deficiencias en la sanidad pública vasca. Los paros están previstos el 29 de octubre en los centros de trabajo de Araba; el 5 de noviembre en los de Gipuzkoa; y el 12 de noviembre en los de Bizkaia.

Por su parte, las trabajadoras de las Residencias de Gipuzkoa y Araba siguen luchando por su convenio, a pesar de la imposición de servicios mínimos abusivos, intentando invisibilizar sus huelgas.



Irene Paredes,  
futbolaria

# “Gizonezkoen taldeko exijentzia bera dugu”

Testua: GORKA QUEVEDO Argazkiak: NAGORE URIARTE

Irene Paredes Hernández (Legazpi, 1991) Euskal Herriak inoiz eman duen futbol jokalaririk onena da. Legazpin jaioa, gaur egun Paris Saint-Germain taldeko kapitaina da, Europako talderik onenetakoa.

2020ko urriaren 29a da. Goizean etxeen harrapatu dugu Irene Paredes; egun horretan arratsaldez entrenatzen dute. Bezperan Frantziako Errepublikako presidenteak, Emmanuel Macronek, agerraldi publikoa egin zuen, Covid-19ak sortutako pandemiaren aurkako neurri berriak iragartzeko. Neurri horiek eurei profesional bezala nola eragingo dien jakitearen zain dago, beraz, Irene Paredes.

**»Mundu osoa astintzen ari den pandemia baten erdian gaude. Zalantzaz betetako garaiak dira askorentzat.**

Denok bezala, egoerara moldatzen ari gara. Martxoan Frantzian futbol liga eten egin zen, bai gizonezkoetan eta bai emakumeetan, eta gero ez zen martxan jarri. Nik uste gero erabaki horretaz damutu egin zirela, batez ere ikusi zutenean beste herrialde batzuetan berriz ere martxan jarri zirela. Egoera arraroa izan zen, etxeen entrenatu behar genuen. Ekainean egoera normal batetara itzuli ginen, bi txapelketa geratzen zirelako bukatzeko, Txapeldunen Liga eta Kopa.

Orain, ordea, zer gertatuko den itxaroten gaude. Ez dakigu neurri berrieik nola eragingo diguten. Zelaiaaren tamainaren arabera, handia bazen, partida batzuetan ikusleak egon dira; zelaia txikiagoa bazen, ez zegoen ikuslerik. Gu profesionalak gara, baina liga amateurra da. Horregatik diot itxaron egin beharko dugula taldeak zer esaten digun eta zein egoeratan geratzen garen.

**»Zein da zuen egoera, futbolari profesionalak zareten neurrian?**

Aurreko konfinamenduan soldata jaitsi ziguten, Paris Saint-Germain ERTE moduko batean egon zen. Orain egoera 'normal' batean gaude, kakotx artean. Egia da taldea klub bezala diru asko galtzen ari dela, baina egoera 'normala' da orain. Egoerara moldatzen ari gara, baina ez da erraza. Ez dakigu liga etengo den ala ez. Eta liga eteten bada, ba gure lanak ez du zentzurik.

**»Munduko talde garrantzitsuenetako bateko langilea zara, baina beste talde askok ez dituzte PSGren baliabideak egoera honi aurre egiteko.**

Bai. Guri astean behin PCR-ak egiten dizkigute, baina hori ez da talde guztietan gertatzen. Derrigorrezkoa ez denez talde horiek euren dirutik ordaindu behar izaten dituzte PCR frogak, eta kasu batzuetan ez dizkiete futbolariei proba horiek egiten dirua horretan ez gastatzeko. Horrela, jokatu dezakegu talde baten kontra jakin gabe aurkariaik positiboak diren ala ez.

**»Errepasatu dezagun zure kirol ibilbidea. Kirolarekin harremana txikitatik izan duzu.**

Etxean oso kirolariak gara, beti gustatu izan zaigu kirola egitea. Betidanik ibili izan naiz kalean erraketarekin, baloiarekin, bizikletarekin... Txikitan judoa egin nuen, gero atletismoa eta futbola batera, bietako bat aukeratu behar izan nuen arte, biak batera ezin nituelako egin. Realak deitu nindueanean lehen mailan jokatzeko bi kirolak batera egitea, futbola eta atletismoa, ez zen bateragarria. Erabaki behar izan nuen, aukeraketa gaizki ateratzen bazen atzera bueltatzeko aukera izango nuela pentsatuz, hau da, atletismora itzuli ahalko nuela.

**»Asmatu zenuen...**

Bueno, bai, ematen du asmatu nuela, horretan jarraitzen dut...

**»Herriko taldean hasi zinen, Legazpiko Ilintxan, baina handik urte betera Zumarragako Urolara joan behar izan zenuen.**

-Bai. Ilintxak taldea zeukan, baina generazio horretako gehienak urte horretan unibertsitatean hasi ziren, eta ez zen egon talde bat ateratzeko adina neskak. Taldea desagertu egin zen, baina nik futbolean jokatzen jarraitu nahi nuenez Urolara joan nintzen.

**»Beraz, futbolean jokatzen jarraitzeko beste herri batetara joan behar izan zenuen. Zumarraga Legazpitik urrutti egon ez arren, 5 kilometro dira, astean hainbat egunetan mugitzera behartzen zintuen. Futbola uztea pentsatu zenuen?**

Nik argi neukan futbolean jokatzen jarraitu nahi nuela, eta gainera zortea izan dut etxeen, beti gustatu izan zaie eta beti egon dira prest ni batetik bestera eramateko. Ez zen egoera errazena, hona (Bikuñara, Ilintxaren futbol zelaira) etxetik edozein momentutan etorri nintekeelako oinez ni bakarrik,



"Tenemos la misma exigencia que el equipo masculino. Entrenamos igual o más. La única diferencia son los viajes. Tardamos más tiempo; al fin y al cabo nosotras no vamos en aviones privados. Y eso que en el PSG estamos muy bien; muchos viajes los hacemos en avión y en tren"

eta Urolan jokatzeko eraman behar izaten nindutelako, baina beti izan dut gurasoen laguntza.

Urola utzi eta Zarautzen hasi nintzenean gauza bera pasatu zitzaidan. Gurasoen berme hori izan ez banu niretzat ezinezkoa izango litzateke Zarautzera joatea. Eurek animatu ninduten, ez zitzaien importa ni eramatea eta ni ere gogotsu nengoenez, urrats hori eman nuen.

**»Ilintxa, Urola, Zarautz. Bertan jokatzen zaudelarik Realak deitzen zaitu. Orduan hasi zinen pentsatzen futbola zure ogibidea izan zitekeela?**

Egia esan ez dut inoiz pentsatu. Beti disfrutatu izan dut kirola egiten, eta aukera izan dut toki batetik bestera pasatu ahal izateko. Nire helburua beti hobetzea izan da, disfrutatzen jarraitza. Exijentzia maila handiak plazer hori ematen dit, gustatzen zaidan hori egitea ahalik eta hoberen. Aukera guzti hauek izanda aprobetxatu ditut. Realera heltzea amets bat bezala zen, baina inoiz ez dut pentsatu: 'honetzaz bizi nahi dut'. Beti saiatu izan naiz disfrutatzen, eta aukera egon den heinean, jarraitzen.

**»Futbolean aritu izan zaren bitartean ere ikasi egin duzu, IVEF edo gizarte heziketa. Futboletik bizitzearen aukerak huts egiten bazuen irtenbide gisan planteatu zenituen ikasketak?**

Unibertsitatean hasten zarenean, 18 urterekin, ez dakit guzti hori errelexionatzeko gai zaren ala ez. Azkenean gizarteak karrera bat edo zerbaitek ikastera eramatzen zaitu, etorkizunerako beharko duzulako edo. Argi neukan posible nuen heinean bi gauzak egingo nitueta, futbolean jokatu eta ikasi. Eta posible izan nuen. Gainera, kirola horrenbeste gustatzen zaidanez eta kirolarekin lotutako gauza bat ikasi nuenez, ba... Karrera bukatuta master bat egin nuen, eta orain beste master bat egiten ari naiz, kirol egokituaren inguruan. Gainera, Bigarren Hezkuntzan klaseak eman ahal izateko titulua atera nuen. Momentuaz disfrutatzen egin dut orain arteko bidea, geroan pentsatu gabe. Eta uste dut jarrera honek eraman nauela honaino.

**»Realean hiru denboraldi aritu zinen. Handik, Bilbora, Athletic-era. Bost urte egon zinen. Zer moduz?**

Oso ondo, oso gustura. Athleticek bere momentuan Liga irabazteko aukera izatea eman zidan. (2015-16 denboraldian Athleticek liga irabazi zuen). Urte askotan bigarren geratu ginen ligan, eta Kopako bi final ere galdu genituen. Beste eskailera bat igotzea zen



"Cuando yo empecé era casi la única chica del pueblo jugando al fútbol, y ahora hay un montón de chicas. Cada vez hay más gente, el interés es mayor, y eso hará que suba el nivel. Queda mucho camino para una igualdad real, pero soy optimista"

Athletic-era joatea, beste koska bat igotzea. Hobetze nahi horregatik joan nintzen.

**»Zure lehen titulua irabazi zenuen, 2015-16. denboraldiko liga. Zer oroitzapen dituzu?**

Egia esan irabazi baino titulu gehiago galdu ditut. Baina, bai, nire azken urtean liga irabazi genuen. Buruz ari naiz, baina oker ez banago bost urtetatik hirutan bigarren geratu ginen, eta beste behin hirugarren. Eta kopako bi final ere galdu genituen. Porrot horiek gogorrak izan ziren, baina gutxienez etapa hori ixteko modurik onena izan zen Liga irabaztea.

**»2016. urte horretan Euskal Herria utzi eta Parisera, PSG talde ospetsura. Aurtengoa zure bosgarren denboraldia da. Frantziako Ligara joatea urrats berri bat izan zen?**

“En cuanto a títulos, he perdido más de lo que he ganado. Son momentos duros. Cuando pierdes piensas: ‘Mejor si nos eliminaron en la primera fase o en la primera ronda y no llegar hasta aquí para perder la final en los penaltis’. Pero no es verdad. Todas las vivencias que te da llegar al final a una final, esa forma de entrenar, esa tensión... es tremenda. Pero es fútbol y alguien tiene que perder”

Bai, beste salto bat ematea zen, beste maila batetara igotzea. Aldaketa hau askoz gogorragoa izan zen, zailagoa, etxetik joatea suposatzen zuelako. Gainera, nire kasuan ez nuen frantsesa ezagutzen, eta kultura ere ezberdina da. Futbolari dagokionez, jokatzeko modua, ezberdina da ere. Guzti horretara egokitutu egin behar naiz, baina egia esan nahiko azkar egin nuen adaptazioa, eta dagoeneko guztiz egokituta nago.

**»Zertan aldatu zen zure jokatzeko era, zertan ezberdintzen dira Espainiar ligako futbola eta Frantziako ligakoa?**

Ezberdintasun nagusia arlo fisikoan dago, jokoa askoz azkarrago doa. Fisikoak garrantzia askoz handiagoa dauka. Oso liga fisikoa da, jendea oso indartsua da, azkarra. Nire jokoa egokitutu behar izan nuen, lehenago pentsatzen, lehenago ateratzera. PSGra heldu aurretik ligako jokalari azkarrenetakoa nintzen, eta PSGn, berriz, jokalari motelenetakoa.

**»Espainiako selekzioarekin ere aritu izan zara. Bi Mundialetan, 2015 eta 2019, minuti guztiak jokatu dituen jokalari bakarra zara.**

Trantsizio hori bizi izan dugun gutxi gaude. Bederatzi urte daramazkit Espainiako selekziora joaten, eta zortea izan dut lehen txapelketa handi batetara sailkatu ginenetik torneo handi guztiak jokatu ahal izan dudalako, Eurokopa (Suedia, 2013), Mundiala (Kanada, 2015), Eurokopa (Holanda, 2017) eta Mundiala (Frantzia, 2019). Jendea asko aldatu da, bai jokalariak, bai staff teknikoa eta bai gizartea bera. Espainiako Futbol Federazioak nesken futbolari ematen dion garrantzia askoz handiagoa da. Aldaketa hau ematen garrantzitsua da, eta ematen ari da.

**»Nazioartean lortutako emaitzek agerian uzten dute garrantzia hori...**

Maila asko aldatu da, batez ere azkeneko hiru edo lau urteetan. Duela bost-sei urte hasi zen benetako apustua egiten, eta horren ondorioz mailak gora egin du, bai selekzioan eta bai taldeetan. Emakumezkoen futbola garatzeko errekurso ezberdinak eman dira, eta orain talde asko profesionalak dira. Futbol taldeak

profesionalak badira, horrek selekzioaren maila hobetza suposatzen du. Orain selekzioa txapelketa handietara joatea normalizatuta dago, baina ni hasi nintzenean ez ginen joaten, oso zaila zen.

**»Aurreko denboraldian Espainiako Ligako emakume futbolariek greba egin dute hitzarmen kolektiboaren alde. Zuk beste liga batean jokatzen duzu, baina nola bizi izan duzu zure lankide eta lagunen greba?**

Greba beharrezkoa izan da gutxieneko batzuk finkatzeko eta behingoz emakumezkoen futbola garatzeko. Greba hasi zenenean selekzioarekin kontzentrazio bat izan nuen, eta horrek gatazka gertuagotik bizitzeko aukera eman zidan. Ez dakit greba den modurik onena gauzak konpontzeko, baina momentu bat heltzen da non zerbait egitea beharrezko den. Eta hitzarmen kolektiboa sinatzeko eskatzen ziren gauzak ez ziren duela bi hilabete eskatutako gauzak. Aurretik ere bai, baina era serio batean duela bi urte planteatu ziren gutxieneko horiek. Denbora honetan mila bide ezberdinatik saiatu gara gutxieneko horiek eskatzen modu pasibo edo lasaiago batean, arrazoik ematen, bilerak egin...

Ez zen ezer arraroa eskatzen, langileak gara, eta lankideentzako minimo batzuk eskatzen genituen. Horregatik momentu bat heldu zen egoera ez zela mugitzen eta zerbait egin behar zela. Greba egitea pentsatu zen eta nik beti eman nahi izan dut nire laguntza.

**»Common Gol nazioarteko ekimen solidarioan ere parte hartzen duzu. Proiektu hau babesten duzuen futbolarri profesionalek zuen soldataren %1a bideratzen duzue lagunza proiektu ezberdinei. Common Gol babesten dutenen zerrenda errepasatzean jabetzen zara emakume futbolarriak gizon futbolarri adina direla, kopuruz askoz gutxiago izan arren eta soldatik, zer esanik ez, askoz txikiagoak izan arren.**

Pertsona bakoitzaren araberakoa da hori. Proiektu honen barruan gaudenok hala nahi dugulako da, ez da



“En el PSG el día a día es el mismo en el equipo masculino y el femenino. Las rutinas y los entrenamientos son los mismos. Normalmente entrenamos por las mañanas. A las 09:00 tenemos que estar en la instalación deportiva para desayunar. Primero hacemos gimnasio para hacer ejercicios de calentamiento y prevención. Después salimos al campo y normalmente nos ejercitamos durante hora y media. Allí comemos, y después de comer hay sesiones con el fisio, según las necesidades. Y, dos días a la semana también tenemos entrenamiento por la tarde”



etori Common Goleko inor guregana ea parte hartu nahi dugun eskatzen. Ez Han gaudenok guk nahi izan dugulako da, eta nire kasuan, nire soldaren %1a eman nahi dudalako. Ez dakit beste futbolari profesionalek zer egiten duten euren diruarekin, norberak bere gauzak ditu, beste batzuk beste organizazio edo fundazioetara ematen dute dirua. Egia esan ez dakit zein den arrazoia ekimen honetan emakumeen eta gizonen kopurua gutxi gora behera berdina izateko. Ez dakin daukagun heziketarengatik den edo zer.

Nire kasuan, zortea daukat nire hobbyarekin bizitza aurrera eramateko aukera dudalako, nire hobbya nire lana da, eta uste dut horrekin aukera izan dezakedala egoera ez on batean dauden horiek laguntzeko. Nik Indiako organizazio batetara bideratzen dut nire diruaren parte hori, nesken organizazio bat, futbolaren bidez garatu eta independizatu ahal izateko.

### »Emakumeen futbola suspertzen ari da. Futbolean hasi zinenean uste zenuen urte gutxitan egoera honetan egongo ginela?

Espero nuen, esperantza hori neukan. Gauzak asko garatu dira ni hasi nintzenetik, eta urtez urte asko

aldatzen dira gauzak, taldeen apustua handiagoa da. Realean hasi nintzenean ez nuen zelai handi batean jokatzeko aukerarik izan. Behin, dagoeneko Athleticen nengoela, euskal selekzioarekin Anoetan jokatu genuen. Hori izan zen estadio handi batean jokatu nuen lehen aldia.

Gero ja Athleticen liga bat galdu genuen, 38.000-40.000 pertsonen aurrean jokatu genuen partida batean, San Mamesen. Hor hasi zen pixkanaka. Orain egia da astebururo ia estadio handi bat irekitzen dela emakumeen futbolerako, eta hori oso onuragarria da. Profesioaren parte da, baina beti esaten dut hau ez litzatekeela izan behar urtean behin egiteko gauza bat, astebururo jokatzea normalizatu beharko litzatekeela.

Orain festa bat bezala hartzen da. Estadioa irekitzen da, ume asko joaten dira, eta egia da emaitza bigarren plano batean geratzen dela. Bainaz zure lana da, errendimendu batean zaude, eta zuk irabazi nahi duzu, liga jokatzen ari zarelako. Oso ondo dago festa antzeko bat egitea, baina garrantzia errendimenduari eman behar zaio.

**»Frantzian egoera hobia da, taldeen egoerari dagokionez?**

Gauza askotan berdina da, baina era berean ezberdina beste gauza askotan. Berdina da neurri batean, bi-hiru talde daudelako goialdean, kondizio eta errendimendu maila handiago batekin. Profesional bezala ez daude bost talde baina gehiago, eta talde asko amateurrak dira. Baina Frantziako federazioa hori aldatzeko asmoz dago.

Lehen bertako liga bestek baino aurrerago zihoa, baina azken urteetan moteldu egin da. Futbol mailan nibela handiagoa da, errendimendua hobia da, baina organizazio mailan, antolakuntzari dagokionez, egia da talde askotan entrenatzeko moduari ematen zaion garrantzia ez dela oraindik onena. Talde askotan jokalariek lana egin behar dute eta gero entrenatzera joan. Eta lana egin eta gero entrenatzen baduzu, entrenamendu hori ez da kalitatezkoa, eta gero asteburuan ezin duzu ondo edo baldintza onenetan jokatu. Eta hori gertatzen bada agian jendeari ez zaio ikusten ari den partidua horrenbeste gustatzen, eta azkenean moztu eta aldatu beharreko ziklo batean sartzen zara.

**»Europa mailako talde onenetako batean jokatzen duzu, PSGn. Gizonezkoen taldea ere Europako onenetakoa da. Baldintzei dagokionez aldeak izugarriak dira diruari dagokionez, batez ere soldatetan, baina bi taldeetako jokalariek duzuen exijentzia maila bera da. Nolakoa da zure eguneroko egun bat?**

Egunerokoa berdina da, guztiz. Gero, egia da, taldeko entrenatzailearen arabera exijentziak ezberdinak direla: batzuetan derrigorrezkoa da bertan gosaltzea eta bazkaltzea, besteetan ez... Baina, bestela, entrenatzeko errutinak eta abar berdinak dira. Normalean astean zehar egun bat libre izaten dugu, baina beti ez da horrela izaten.

Goizetan entrenatzen dugu. 09:00tan kirol instalazioan egon behar dugu gosaltzeko. Lehenik gimnasioa egiten dugu, beroketa eta prebentzio ariketak egiteko. Ondoren zelaira ateratzen gara, eta normalean ordu eta erdiz aritzen gara. Han bazkaltzen dugu, eta bazkaldu eta gero fisioarekin saioak daude, beharren arabera. Eta, astean bi egunetan arratsaldean ere entrenamendua izaten dugu. Berdina da, ez dugu gizonezkoen taldea baina gutxiago entrenatzen.

Eta, gainera, taldearen izenean ditugun ekitaldi ezberdinak ere antzekoak dira: umeekin egon, ospitaleetara joan, eskolak bisitatu... Exijentziari



dagokionez dena berdina da, berdina edo gehiago entrenatzen dugu. Alde bakarra bidaiaiak dira, denbora gehiago eman behar izaten dugu. Azken finean gu ez goaz hegazkin pribatuetan. Eta hori PSGn oso ondo gaudela, bidai asko hegazkinez eta trenez egiten ditugu.

**»Nola ikusten duzu emakumeen futbolaren bilakaera? Nola ikusten duzu kirol mailari dagokionez bost edo hamar urte barru?**

Uste dut hobera joango dela. Orain ematen ari den aldaketa erritmoa handia da, eta hori ona da. Behin minimo hauek jarrita, (hitzarmen kolektiboaren akordioan lortutakoaz mintzo da), gizartean aldaketa bat ere ematen ari da. Ni hemen (Legazpin) hasi nintzenean ia herriko neska bakarra nintzen futbolean jokatzen, eta orain neska pila bat daude. Geroz eta jende gehiago egon, interesa handiagoa da, eta horrek maila igotzea ekarriko du.

**»Hala ere, asko geratzen da benetako berdintasun bat lortzeko. Abuztuan Txapeldunen Ligaren azken fasea jokatu zen Anoetan eta San Mamesen. Zuek final-erdietan galdu zenuten, eta partida amaieran kexatu zinen, gizonezkoen txapelketan ez bezala, zuenean ez zegoelako VAR edo bideo-arbitrajerik.**

Lehenengo argi utzi nahi dut ez genuela galdu horregatik, ez ginen etxera joan bideo-arbitrajea ez zegoelako. Baina, hori esanda, ez da normala horrelako partidu batean bideo-arbitrajerik ez egotea. Ez da

“Mi familia ha sido fundamental. Me llevaban en coche para jugar en el Urola, igual a Zarautz... Cuando he jugado con la Real, el Athletic o la selección siempre han estado allí, en la grada. También vienen a París. Me han apoyado en todas las decisiones que he tomado. Ahora, con los años, da la impresión de que es fácil cambiar de equipo, pero no; supone muchas cosas. A pesar de ello, siempre me han dado apoyo y herramientas para hacer lo que he creído mejor en mi carrera deportiva”.

normala. Txapeldunen liga osoan bakarrik finalean egon zen. Benetako berdintasuna lortu nahi badugu denok laguntza behar dugu, eta arbitroek ere laguntza behar dute. Eta uste dut garrantzitsua dela jendeak hori jakitea. Partida hori San Mamesen jokatu zen, eta jendeak pentsatu dezake: “a, ba San Mamesen jokatzen badute gizonezkoen baldintza berdineta jokatuko dute”. Ba ez, gure kasuan, adibidez, ez genuen bideo-arbitrajerik, Txapeldunen Ligako final-erdi batzuk izan arren. Ez da normala horrelako zelai batean jokatzea, VAR teknologia egoteko azpiegitura guztia daukana, eta ez egotea hiru lagun bertan telebista bidez arbitroari laguntzen.

### »**Zein da futbolak utzi dizun edo eman dizun aitortzarik onena?**

Hainbat sari indibidual lortu ditut. Bai, sari horiekin pozten zara, gauzak ondo egin dituzula esan nahi duelako eta lan hori aitortzen dizutela. Baino bueno, futbola talde kirola da eta beti nahiago izaten duzu talde bezala zerbaite irabazi. Futbolean taldean egiten duzu dena, irabazi zein galdu.

Nik futbolean askoz gehiago galdu dut irabazi dudana baino, baina Athleticekin irabazitako liga eta PSGrekin

irabazitako kopa... buf... horiek dira gelditzen zaizkizun momentuak, grabatuta dituzunak. PSGn lehen urtean Europako Txapeldunen Ligako finalera sailkatu ginen, eta penaltietan galdu genuen. Baino nahiz eta galdu final hori grabatuta daukat, horra iristea kristorena izan zen. Zuretzat gelditzen diren momentuak dira.

### »**Futbolaren alde txarra ezagutzen duzu, kirol ikuspuntutik. Irabazi duzu, baina askoz gehiago dira galdu dituzun finalak irabazitakoak baino.**

Momentu gogorrak dira. Justo galtzen duzun momentuan pentsatu izaten duzu: ‘hobe lehen fasean edo lehen kanporaketan kanporatu bagintutzeta eta ez honaino iritsi finala penaltietan galtzeko’. Baino ez da egia. Azkenean final batetara heltzeak ematen dizkizun bizenetakoak, entrenatzeko modu hori, tentsioa hori... izugarria da. Baino futbola da, eta norbaitek galdu behar du.

Oso lehiakorra naiz, eta beti irabazi nahi dut, baina... Batuetan gauzak gertatzen dira, ikusten duzu zure indar guztia jarri duzula baina ez duzula lortu. Baino futbolak beti ematen dizu beste aukera bat, eta hori da galtzen duzunean berriro entrenatzeko eta berriro hor egoteko indarra ematen dizuna.

### »**Beti esan izan duzu futbolean egin duzun ibilbide oparo hau ezinezkoa izango litzatekeela familiak eman dizun babesik gabe.**

Guztiz oinarrizkoak izan dira. Urolan jokatzeko eramateen ninduten, Zarautzera berdin... Realean hasi nintzenean ez neukan oraindik gidabaimenik, eta Realak jartzen zidan taxi zerbitzu bat erabiltzen nuen. Baino, partidetara, eurek eramateen ninduten. Realarekin, Athleticekin edo selekzioarekin jokatu ditudan partida guztietan han egon dira beti, harmailan. Parisera ere etortzen dira. Eta ez hori bakarrik, erabakiak hartu behar izan ditudanean beti egon dira hor. Orain, urteekin, ematen du erraza dela taldez aldatzea, baina horrelako aldaketa batek gauza asko suposatzen ditu. Eta beti eman dizkidate niri kirol ibilbidean hartu ditudan erabaki guztia hartzeko babesera eta tresnak. **A**



# La capitana de Paris

Irene Paredes Hernández (Legazpi, 1991)

G.Q.



Irene Paredes es, sin duda, la mejor jugadora de fútbol de la historia de Euskal Herria. Capitana y una de las estrellas del Paris Saint Germain, –uno de los clubs más importantes del panorama futbolístico mundial– pasó su infancia entre raquetas, balones y bicicletas. También practicó judo y atletismo pero, al final, tuvo que elegir: y eligió fútbol.

El 5 de octubre se han cumplido doce años desde que jugó su primer partido profesional con la Real Sociedad. Durante este tiempo ha vivido en primera persona la evolución del fútbol femenino, lo que le hace ser optimista de cara al futuro. Cuando ella empezó a jugar, recuerda, no había muchas chicas. Ahora, sin embargo, la situación es muy diferente. “Cada vez son más las chicas que juegan a fútbol y cada vez se apuesta más por el fútbol femenino. También en la sociedad se está dando un cambio. Cuanta más gente esté involucrada, el interés será mayor, y eso hará que suba el nivel”.

Sin embargo, eso no significa que todavía no haya muchas cosas que mejorar. Por ejemplo, en la última Champions League femenina, salvo en la final, no hubo VAR. “No quiero decir que nos eliminaron por la ausencia de VAR, pero no es normal que en un partido así, unas semifinales de Champions, no hubiera video-arbitraje. Y más jugándose ese partido en un estadio como San Mamés, que tiene toda la infraestructura para poder utilizar el VAR”.

